

Errenteria

HERRI BIZIA 

GURASOAK, IKASTETXEEN BARRUTIK ERAGITEN

*Madres y padres, incidiendo desde dentro
de los centros educativos*



*Ikastetxeetako
gurasoen
elkartek*

3. ORR. >>

Argazkiak

6. ORR. >>

Herri Bizia

8. ORR. >>

Mugikortasuna

12. ORR. >>

*Errenteria
Bizia*

15. ORR. >>

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

ERRETERIAKO ESKOLA KONTSEILUA *CONSEJO ESCOLAR DE ERRETERIA*

Unibertsitatez kanpoko eta 2-16 urte artekoen tokiko irakaskuntzan zerikusia duten eragileen parte hartze organoa da.
En el Consejo Escolar Municipal toman parte los agentes implicados en la educación local no universitaria de 2 a 16 años.

Funtzioak *Funciones*

Parte hartze, kontsulta eta aholkularitzarako organoa da.
Es un órgano para la participación, la consulta y el asesoramiento.

Erakundeak *Instituciones*


Kontseiluan parte hartzen duten sei ikastetxe daude.
 Horietatik hiru dira publikoak; Bizarain, Cristobal Gamon eta Koldo Mitxelena. Beste hirurak, berriz, itunpekoak: Orereta, Egiluze eta Telleri-Alde.

Existen seis centros que toman parte en el consejo escolar. De ellos tres son públicos: Bizarain, Cristobal Gamón y Koldo Mitxelena. Los otros tres son concertados: Orereta, Egiluze eta Telleri-Alde.


Helburua *Objetivo*

Hezkuntzaren programazioan parte hartzea bermatzea irakaskuntzarekin zerikusia duten guztiei. Horretarako tresna nagusia da kontseiluaren ekimenez osaturiko hezkuntza-diagnostiko partekatua.

Garantizar a todas las personas afectadas en el ámbito de la enseñanza la participación en la programación general de la enseñanza. La principal herramienta para ello es el diagnóstico de educación compartido que se ha realizado en el consejo.



ERRETERIAN IKASTEN DUTEN PERTSONAK ZIKLOKO PERSONAS QUE ESTUDIAN EN ERRETERIA POR CICLO





Hezkuntza komunitatean eragiten

'Hezkuntza' hitza aditzean, ikastetxeak etortzen dira burura, derrepentean. Estuki lotuta daude, eta eskolekin modu berean erlazionatuta daude guraso elkarteak; hezkuntza komunitatearen beste adar bat dira. Erreterrian, sei dira Lehen Hezkuntza ematen duten zentroak, eta bertako guraso batzuk elkartu dira euren elkarteen funtzioari eta lanari buruz solasteko.

tela, langile eta irakasleekin batera; eredu bera darabilte Gamonen eta Bizarainen ere. «Gurasoen ordezkaria da gehiengo. Guraso eta familiok ez gara kontziente zein lan egin dezakegun komunitatean. Akatsa da ez dugula parte hartzen. Egutegiaren finkatzeak eta abarrek gure botoa behar dute, eta ez gara kontziente».

Orereta Ikastolan, erdibideko eredu dute, Loreto Susperregiren arabera. Gurasoen kooperatiba bat da, berez, eta batzarra dute: «Artezkari-tzak [hezkuntza komunitate osoa ordezkatzeko duen organo gorena da] kudeatzen du batzar nagusiaren izenean. Guraso batzordeak organo kontsultibo lana egiten du, eta artezkari-tzak iritzia kontuan hartzen du». Alde horretatik, eskola publikoarekin antza handiagoa duela dio, gura-

Zenbat ikastetxe, hainbat guraso elkarte esan daiteke, esaera zaharra moldatuz. Izan ere, eragile horiek funtzio eta erabakitze ahalmen ezberdinak baitituzte, ikastetxearen izaeraren arabera. Egiluze ikastetxeok Agustin Franciscok azaldu duenez, gurasoen bilguneak eskolaren eta gurasoen arteko bitartekariak dira; eskaerak eta proposamenak bidaltzen dizkiote eskolaren zui kaszendaritzari. «Eskolak ez badu nahi, nahi duzuna esan dezakezu, ez dutela egingo. Enpresa moduan jokatzeko dutela esan daiteke», zehaztu du. Telleri-Alden antzeko eredu dute, Sonia Aldaveren esanetan.

Eli Lamarkak, Koldo Mitxelenakoak, esan du eskola publikoan organo gorenean gurasoek ordezkari-tza du-

CONSEJO ESCOLAR, EL FORO

El Consejo Escolar municipal de Errenteria es el foro compartido por el conjunto de centros educativos no universitarios y el Ayuntamiento. Su finalidad es coordinar las diversas actividades educativas que se realizan durante el año, impulsar relaciones entre diferentes representantes de los centros y consensuar los principales retos en materia de educación que pueda tener nuestro municipio.

Aunque la oferta educativa de Errenteria sea plural y eso enriquezca la realidad de nuestro municipio, el consejo escolar tiene la pretensión de hacer hincapié en los nexos de unión y no tanto en las diferencias de los proyectos educativos.

Forman parte del consejo unas 45 personas: representantes de padres y madres; del alumnado; del profesorado; de los y las trabajadoras no docentes; de las directivas y también de los grupos políticos municipales.

El reto principal del curso 2017-2018 ha sido la ejecución de un diagnóstico compartido, donde se han recogido datos relevantes que nos aportan la radiografía de Errenteria en materia de educación. Esta radiografía, compartida por todos los centros, pretende ser la principal herramienta de trabajo del consejo escolar a la hora de definir los retos y las políticas educativas que abordar en los próximos años.

Telleri-Aldeko Aldavek esan duenez, euren guraso elkarteek egiten duten «lanaren %90» eskola orduko ekitaldiak antolatzeko erabiltzen dute. Hala ere, jasotzen dituzten proposamenak Eskola Kontseilua- ren bitartez bideratzen dituzte.

Parte hartzea

Ikastetxe bakoitzak bere funtzionamendua du, baina denak bat datoz gurasoen parte hartzea ez dela nahi bezain bestekoa. Egiluzen lehen zegoen taldea ordeztuta, egungo guraso elkarte konfiantza handiagoa irabazten ari dela adierazi du Itxaso Fernandezek, bai eskolarekin baita gainontzeko gurasoekin ere. Bere taldekide Franciscok nabarmendu duenez, guraso batzuek 'paso' egiten dute: «Batzuentzat, hezkuntza zentro bat hurrak aparkatzeko toki da...».

Susperregik uste du gurasoek gehiago ez parte hartzea gizartearen sintoma bat dela. «Boluntarioaren ereduak ez du funtzionatzen, eta beste eredu batzuk bilatu behar dira. Ikastetxe bakoitza bere bidea bilatzen ari da...».

soek erabakitze ahalmen handiagoa dutelako.

4

Eskaerak

Bizaraingo Aitziber Lopez de Etxezarretak azaldu duenez, kexa eta proposamenen artean denetarik dago. Hasi detaile txikienetik eta buka handiengan: zein irakurketa metodo erabiltzen den eta zergatik; eskolaz kanpoko jarduerak; autobus eta jangela zerbitzuen kudeaketa; tutoreena...

Egiluzeko Yolanda Sierrok kexa edota eskaerak ikastetxearen zuzendaritzaren galbahetik pasatzen direla ziurtatu du. «Kexak pertsonalizatuak izan daitezke, baina ikusten duzunean guraso askok kexa berbera dutela, bideratzen da. Adibidez: guraso batek esaten badu bere haurra ez dagoela jangelako aukiarekin gustura, ez zara joango; 50 gurasok esaten badute aukiak zaharkituta daudela, bai», zehaztu du.



IMANOL CIDONCHA

(Cristobal Gamon)

«Inplikazioa da gakoa. [Gamonen] Badugu gauza batzuk erabakitze ahalmena, baina inplikazioa txikia da».



LORETO SUSPERREGI

(Orereta Ikastola)

«Eskolatik ateratzen direnak dira etorkizuneko hiritarrak. Gure ardura da».



ELI LAMARKA

(Koldo Mitxelena)

«Gurasoek ez gara kontziente zein lan egin dezakegun komunitatean».

Gurasoek inplikazio handiagoa beharko lukete, Lopez de Etxezarretaren arabera: «Guk egon beharko genuke eskolatan askoz gehiago sartuta, gehiago lan egin. Gu gara oinarria. Gu gara bezeroak». Susperregik bat egin du horrekin. «Eskolatik ateratzen direnak dira etorkizuneko hiritarrak. Gure ardura da. Seme-alabak edukitzen dituzu, eta etorkizunera begira, beraiek dira ho ni jarraipena emango diotenak. Ahal den hezkuntza onena eman behar da, bakoitzak bere irizpideekin». Eta galdera bat egiten du: «Horretan parte hartzen ez baduzu, zer ematen diezu zure seme-alabei? Gure betebeharra da».

Orereta Ikastolako gurasoak ziurtatu du haurrek ez dituztela bakarrik kompetentziak ikasi behar, baloreak ere. Hala ere, oreka bilatu behar dela dio: «Baloreak transmititzen ditugunak gurasoak dira, etxean hasita, baina eskolara transmititu behar da. Harremana egon behar du etxean erakusten ditugun baloreen eta ikastetxean ematen dituztenak».

Gamon ikastetxeko Imanol Cidoncha ados dago eurekin. «Inplikazioarena da gakoa. Guk bilerak egiten ditugu

eta botoa ematen dugu: erabakitakoa nahitaez bete behar da. Badugu eskuduntza bat hainbat gaitan, baina inplikazioa txikia da. Handiagoa izan beharko luke».

Baloreak

Gurasoek boluntario direla argi utzi nahi izan dute, ez dutela deus kobratzen, batzuen iritziaren kontrara. Gainera, atsegin ematen die lan egiteak, arrazoi batengatik ala bestearengatik. Sonia Aldave: «Boluntariotzaren baloreak ikusten dira, askotan, guk antolatzen ditugun jardueretan. Gizartean balore hori ez dago boladan. Ikusi behar dute garrantzitsua dela, barruan sartu behar dute, eta hori polita da».

Hezkuntza komunitatearentzat ez ezik, konturatzen dira eurentzat, gurasoentzat, ere lan egiten dutela. Lopez de Etxezarreta: «Gauza asko ikasten ari naiz guraso elkarteetan. Gainera, hainbeste urteren ondoren, ikusten dituzunean zure seme-alabak esanez 'Jo, zein ongi pasatu dudan mendi irteera horretan!', hori baloratzen duzu; horregatik ere barenago ».

LA FIESTA DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA, EN ERRENTERIA

La comunidad educativa vertebrada en torno a las escuelas públicas celebrará su gran día el 2 de junio de 2019 en Errenteria. Según cuenta Maialen Oliveri, miembro de la APYMA Koldokide, supieron de la decisión en septiembre del 2017. Entre tres candidaturas, ellos tenían un valor añadido: nunca se había celebrado en Oarsoaldea.

Se pusieron manos a la obra; el pasado curso se juntaron una docena de madres y padres, y comenzaron a trazar lo que va a ser la fiesta: los espectáculos, las áreas festivas... Oliveri afirma que todavía no tienen nada decidido, aunque los criterios son claros: el eje de la fiesta será el río Oiartzun, y van a intentar involucrar a la gente de la villa, ya sea para echar una mano, para ser protagonistas de las actividades o para organizarlas.

En Koldo Mitxelena son conscientes de que es un gran reto, aunque no les va a faltar la colaboración de los padres y madres de Gamon ni de Bizarain, y tampoco de los miembros del resto de las comunidades educativas de los centros públicos de la comarca. «Es un gran reto, pero bonito; servirá para darnos visibilidad», concluye Oliveri.



SONIA ALDAVE

(Telleri-Alde)

«Gure guraso elkartearen lanaren %90 eskolaz kanpoko ekitaldiak antolatzeari eskaintzen diogu».



ITXASO FERNANDEZ

(Egiluze)

«Lehen zegoen guraso elkarteko taldea ordeztu dugu; konfiantza irabazten ari gara eskola eta gainontzeko gurasoekin».



AITZIBER LOPEZ DE ETXEZARRETA

(Bizarain)

«Guk egon beharko genuke eskolatan askoz gehiago sartuta, lan gehiago egin».



Atlant
20



ikaldia

2018





Errenteria Herri Bizia Udal Aldizkaria-Revista municipal 8 zenbakia

*infórmate del día a día en
herriko egunerokotasunaren
berri izateko*



HERRI BIZIA
herribizia.errenteria.eus

✔ **Lur azpitik hobeto**

*Pontika-Beraun nahiz Igantziko bidegorria-Pontikako frontoia
kale zatietan aireko linea elektrikoak lurperatu egin dituzte.*



La Casa de las Mujeres >> **tiene cimientos**

*Se está levantando el edificio que
será el punto de encuentro de las
mujeres del municipio.*



Zeluloidea kalean

*Ozzinema Summer
egitasmoak auzoetako plazak
zinemaz bete ditu udan.*



Iraunkorra dena kargatzeko

Dagoeneko zure ibilgailua Merkatuzar aparkalekuan karga dezakezu, doan.



Nuevo aparcamiento de Pontika. ¿Te interesa?

El Ayuntamiento ha llevado a cabo una consulta para conocer impresiones sobre el parking proyectado en el barrio para 2019.



Tras la fiesta, a casa en autobús

Estas Madalenas los autobuses nocturnos han llegado a más puntos y se han podido solicitar paradas intermedias. El nuevo servicio ha mejorado la calidad de las fiestas.



Auzoetan Bizi BERAUN



Beraun kalea eta Galtzaraborda etorbidea, batuta

En marcha el proyecto de construcción del ascensor que unirá la calle Beraun y la avenida de Galtzaraborda en dos tramos. Las obras deberán estar finalizadas dentro de doce meses. Por lo tanto, la accesibilidad dentro del barrio será más adecuada para todos/as los/as habitantes del barrio.

Luz sostenible

120.565 euro inbertsioa egin ondoren, auzoko 232 luminaria ordezkatu egin dira. Hala, Beraungo kaleko argitazpena uniformeagoa da orain, argi kutsadura txikiagoa da, energia aurreztuko da, eta aldi berean, mantenu lanak errazagoak izango dira.



Cultura y servicios descentralizados

Una de las apuestas estratégicas del Ayuntamiento es llevar la cultura a los barrios y Beraun tendrá su espacio cultural propio. Se ha empezado a rehabilitar el antiguo parvulario para reconvertirlo en casa de cultura y punto de atención ciudadana -ZU!, donde se podrá realizar cualquier trámite municipal. Tendrá una biblioteca amplia adecuada a los usos y tecnologías actuales y, además, será un espacio de desarrollo de actividades culturales y formativas. Se prevé que para primavera del 2019 Beraun cuente con un espacio cultural propio en la calle Aldakoenea 2.

Llueva o no, al parque

2017ko urritik, Pablo Sorozabal plazako haurren parkeak egitura berria eta estalkia du. Horrela, auzoko haurrek aisiaz kalean gozatzeko beste aukera bat dute, eguraldiarekin zer gertatu zain egon gabe. Gainera, parkearen estalkiak duen egitura berezi eta koloretsuagatik, auzoa bizitzaz betetzeko saiakera egin da.

//udal taldeen mezuak//

LA IMPORTANCIA DE LA COLABORACIÓN INSTITUCIONAL

[PSE-EE] Desde el Grupo Socialista destacamos la importancia que tiene la colaboración institucional, siendo vital el trabajo conjunto con las diferentes instituciones para conseguir financiación para proyectos que redunden en una mejor calidad de vida para los vecin@s.

Fruto del compromiso de los departamentos que los socialistas gestionan en las instituciones, durante esta legislatura han visto o verán la luz diferentes infraestructuras y proyectos como las 51 viviendas dotacionales para jóvenes, ascensores como el de Alaberga y Galtzaraborda, el bidegorri de Alaberga o la peatonalización de Alfonso XI, entre otros.

Queremos agradecer la labor y el compromiso demostrado por l@s consejer@s y diputad@s socialistas con Erreterria lo que hace mejorar nuestra villa.

HERRITARREN BEHARREI ERANTZUNA EMATEKO ELKARLANEAN SINESTEN DUGULAKO

[EAJ-PNV] Legealdiko azken aurrekontuak onartuko ditu udalak urte amaiera baino lehen. Urteroko lanketa hori, zoritxarrez, elkarlana baino lehia bihurtzen da gure udalean. Udal gobernuak bere proposamena aurkeztuko digu oposizio taldeoi eta guk gure aldaketa proposamenak aurkeztuko ditugu. Aldaketa proposamen horiek, baina, ziurrenik ez dira aintzat hartuko, udal gobernuak baduelako nahikoa bozka bere proposamena aurrera ateratzeko. Hori izan da hiru urte hauetako dinamika behintzat. Aurtengoan gauzak bestelakoak izatea nahiko genuke. Eman diezaiegun herritarren beharrei ahalik eta erantzunik onena, jardun dezagun elkarlanean eta ez lehian. Dagoeneko luzatu dugu etxebizitzaren gaia guztiok elkarrekin lantzeko eskaera. Hasiera bat izan daitekeela uste dugu. Azter ditzagun guztion proposamenak eta eman diezaiegun etxebizitzaren behar horiei erantzunik egokiena.

HACIENDO SERVICIOS SOCIALES

[IrabaziZ] La puesta en marcha del consejo asesor de Servicios Sociales ha sido una petición de las asociaciones que trabajan en este campo. Desde el Gobierno Municipal asumimos ponerlo en marcha en esta legislatura. El proceso de constitución se ha iniciado y en breve recibirá un impulso definitivo.

Es fundamental que las asociaciones compartan espacios de trabajo donde se refuercen las relaciones entre Ayuntamiento y asociaciones y que exista un reconocimiento mutuo. Será un foro donde también se reforzarán las relaciones entre las asociaciones.

Erreterria Irabaziz damos las gracias a quienes con sus aportaciones han contribuido en los pasos que se han dado. Por hacer que el futuro Consejo Asesor sea el Consejo de todos y todas. Labor colectiva para seguir haciendo una Erreterria mejor.

ESKOLATIK HERRIRA, KOMUNITATEA

[EH Bildu] Hezkuntza, mundua aldatzeko erabili daitekeen armarik indartsuena dela esan zuen Nelson Mandelak behin.

Justizian eta guztion ongizatean oinarritzen den herria amets, hezkuntza modu integral eta integratuan landu behar dela ulertzen dugu. Eskolan zein eskolatik kanpo, familian zein etxeko lau horretatik at. Horregatik, herri hezitzailea dugu jomuga, berdintasunean eta askatasunean hazi eta heziko gaituen herria.

Hezkuntza komunitatearen erdigunean ditugu ikastetxeak. Erronka handiei aurre egiten egunez egun, familia zein irakasle. Sei ikastetxe, sei mikrokomunitate herri bakarrean. Herri egitea, komunitate egitea, guztien arteko sareak eraikitzen hasten da. Bizipoza elkarteko lagunek erakutsi zituzten bezala, munduak guztiontzat beharko lukeenez, jardun dezagun txikitik eraldaketa handiak lortzeko.



Movimiento con sentido

Mugimendu zentzuduna

Ibilgailuak gutxiago erabili, eta oinezkoei eta bizikletei erraztasunak eman. Zeregin horretan dihardu Errenteriako Udalak. Mugitzen den herria da Errenteria, zentzuzko bidean.

Errenteria se mueve. Nos movemos. Todos los días del año, sin excepción, los/as habitantes de la villa salen a la calle.

Cualquiera que sea la razón de la salida (trabajo, gestiones, compras, tiempo libre...), los y las errenteriaras utilizan las calles, carreteras, bidegorris, plazas y demás infraestructuras públicas del pueblo para ir y venir. Pero a veces, se dan casos de difícil coexistencia entre los vehículos y las personas, entre las dificultades del terreno y las

posibilidades de movilidad, o entre la tranquilidad y el ajetreado día a día. Hay que tener en cuenta que la mayor parte de los movimientos corresponden a desplazamientos que hacen vecinos y vecinas de Errenteria entre los barrios en esta que es la tercera ciudad más populosa de Gipuzkoa. Errenteria También está haciendo camino. Errenteria se mueve.

Un dato. En la villa hay censados 20.720 vehículos a motor. Imaginen por un momento que todos estos coches, furgonetas, camiones, mo-

tos... salen a circular al mismo tiempo. No sólo colapsarían las decenas de kilómetros de carreteras que tiene la localidad; seguramente ese colapso afectaría a toda Oarsoalde. No sería viable ni a efectos de tráfico, convivencia ni sostenibilidad. Por todo eso, sobre todo en los desplazamiento que se realizan dentro de Errenteria, el Ayuntamiento está trabajando para conseguir un menor uso de los vehículos a motor, en beneficio de las personas. En definitiva, que los y las viandantes hagan sus trayectos seguros, quien utiliza la bicicleta como transporte diario lo pueda hacer con garantías, o que los habitantes de los barrios altos tengan más fácil acceder a cualquier punto de la villa.



IGOGAILUAK, GORANTZ

Herrian mugikortasuna bermatzeko ezinbestekoa da goiko eta beheko azken arteko loturak hobetzea, finean, herritarrei erraztea euren eguneroko desplazamenduak. Zentzu horretan, igogailuen presentzia areagotzen ari da azken urteetan. Ikusgarritasun urbanoaz harago, oso erabilgarriak dira (erabiltzaileen datuek hala diote) batez ere mugikortasun arazoak dituzten herritarrentzat, etxetik ateratzea, mugitzea, herria osoki gozatzea errazago zaie. Hala, 2006 urtetik, orotara zazpi igogailu publiko eraiki dira herrian, eta zortzigarrena (Urdaburu kaletik Galtzaraborda etorbidera) bidean da. Besteak honakoak dira: Fanderia-Agustinak (2006an egina), Resurreccion Maria Azkue-Markola (2012), Sorgintxulo-Basanoaga (2007), Basanoaga-Telefonica (2013) Alaberga (2017), Apeadero kalea-Parke kalea (2011) eta Parke kalea-Urdaburu (2012). Denak egiteko ia 6 milioi euroko aurrekontua erabili da.



de autobus urbano. Es decir, como media, el año pasado cada vecino/a de la villa utilizó casi 19 veces el transporte público urbano.

Esos desplazamientos tienen mucho que ver con actividades cotidianas: ir a trabajar, ir al centro escolar, ir de compras, ir a las instalaciones deportivas o recreativas y culturales, trayectos que tienen que ver con el ocio... Pero en lo que se refiere a los viajes de a pie, aparte de esos 'viajes obligados', el Ayuntamiento está trabajando para que esas costumbres ligadas a lo cotidiano sean extensibles a lo relacionado con los buenos hábitos de sostenibilidad, y de mejora de la salud. Por eso, además de animar a la ciudadanía que ande cuando y por donde quiera, tiene un programa de Recorridos Saludables para que ese hábito de andar vaya más allá de lo imprescindible.

La actividad física, y por ejemplo caminar, no trae más que beneficios a las personas. Para andar no hacen falta grandes infraestructuras, y basándose en esas

máximas se sustenta el programa de Recorridos Saludables. Están diseñados para que cualquier persona los pueda realizar, según apuntan desde el área de Deportes del Ayuntamiento. Hay cuatro en total: Fanderia, 2.730 metros; Iztietia, 1.905 metros; Beraun, 2.100 metros y Galtzaraborda-Txirrita Maleo, 4.510 metros. Podéis acceder al trazado de estas vías en la [web kirolak.errenteria.eus](http://web.kirolak.errenteria.eus).

El departamento de deportes ha introducido una novedad para este curso, que ha adelantado en exclusividad para Herri Bizia: paseos con bastones. Se realizarán cuatro días a la semana, se prevén dos salidas desde la zona deportiva de Fanderia (lunes y miércoles), y otras dos desde el polideportivo de Galtzaraborda (martes y jueves), siempre a las 10:45. Estos paseos se llevarán a cabo con la ayuda de un monitor, que indicará cómo utilizar los bastones. Están pensados para personas mayores de 65 años, pero desde el departamento indican que serán flexibles en cuanto a la edad de los/as asistentes.

Argazki zaharra

Autobus publikoak herriaren paisaiaren zati dira. Jakina, ez dira berriak. Adibidez, Erretereria eta Donostia lotzen dituen garraio publikoaren lehen trazak ezagutzeko 1890eko ekainaren 13ra joan behar da, orduan abiatu zelako bi udalerrriak lotzeko garraio publiko zerbitzua, mandoek mugiarazten zituzten tranbiek; Motor elektrikoa zuten tranbiek 1897an ordezkatu zituzten mandoak. 1953an, tranbien ordeztu, indar elektrikoarekin mugitzen ziren autobusekin hasi ziren bidaiariak handik hona eramaten, trolebus ezagunak. Eta azken horiek 1974an hasi ziren trukatzeko diesel motordun autobusekin. Aurreko zerbitzuak Donostiako Tranbia Konpainiak kudeatu zituen. 1990an hasi zen Lurraldebus errepideko autobus garraioa ematen. Irudian, trolebus bat Erretererian, 1963 urte inguruan. Argazkia: Euskotrenen artxiboa/Burdinbidearen Euskal Museoa.

Ba al zenekien...

Iaz **758.404 erabiltzailek** erabili zutela Urbanoa?

2017an, Erretereriako autobus publiko zerbitzua edo Urbanoa **758.404** herritarrek erabili zuten. Ohiko zazpi linea ditu zerbitzuak, eta horietatik erabiliena U22a izan zen (Beraun-Kaputxinoak-Lartzabal) **310.277** erabiltzaileekin. Jarraian U11 (Beraun-Kaputxinoak) **226.421** bezerorekin, U33a (Agustinak-Markola-Zamalbide) **78.554**ekin, U7a (Fanderia-Agustinak-Markola-Zamalbide-Perurena) **59.447**ekin eta U5a (Alaberga-Gerontologikoa-Masti Loidi) **42.978**ekin aurkitzen dira. Galtzaraborda-Beraun-Pontika linea (U6) **32.226** herritarrek erabili zuten, eta Beraun, Txirrita Maleo eta Masti Loidi lotzen dituen U44a **8.501**ek.



Txoko bat

El convento de Agustinas, también conocido como Convento de la Trinidad, data de 1543. Fue fundado por las hermanas Bárbara, Catalina y Mari Juan de Asteasu; ese apellido podría hacer referencia a la procedencia de las hermanas (Asteasu), aunque hay indicios que dicen que eran vecinas de Erretereria. Sus comienzos no estuvieron exentos de polémica, ya que se instalaron en la villa sin el consentimiento de las autoridades municipales en un principio, y más adelante optaron por prescindir de los servicios sacerdotales de los clérigos de la villa. La iglesia es de una sola nave, con fachada austera, pero con la portaza de traza clásica de medio punto. Es muy popular en la villa, y choca un tanto con el diseño de las casas del barrio de las Agustinas, puesto que estas fueron construidas en su mayoría dentro de la expansión urbanística de la villa de las décadas de 1960 y 1970.

Erreterriako Udalarekin harremanetan jartzeko telefono zenbaki berria*

Nuevo número de teléfono para ponerse en contacto
con el Ayuntamiento de Erreterria*



010 telefono zenbakia erabilgarri egongo da
ZU! Zure Udala arreta zerbitzuaren ordutegi berean.

El número de teléfono **010** estará en funcionamiento
durante el horario de ZU! Zure Udala-Servicio de Atención.

Astelehen, asteazken eta ostiraletan
Lunes, miércoles y viernes:

7:30 - 15:00

Asteartea eta ostegunetan
Martes y jueves:

7:30 - 20:00

*Telefono honetarako deiak Erreterriatik bertatik egin behar dira eta doakoak dira.
*Las llamadas a este número habrán de realizarse desde Erreterria y serán gratuitas.

Aldizkari honen hurrengo zenbakiak herritik kanpo bizi den erreterriarren batek jasotzea nahi baduzu bete ezazu beheko formularioa. Si quieres que alguna o algún erreterriarra que viva fuera reciba los siguientes números de la revista háznos llegar sus datos rellenando el formulario:

Izena Nombre _____

Helbide osoa Dirección completa _____



HERRI BIZIA
etorkizunaren aldean



Erreterriako Udala

Entrega ezazu kupoia udaletxean edo jarri gurekin harremanetan herribizia@erreterria.eus edo 943-44 96 00 telefonoan.
Entrega este cupón en el ayuntamiento o ponte en contacto con nosotros a través de herribizia@erreterria.eus o el teléfono 943-44 96 00.